

María Cueto artistak bere erakusketa bereziena dakar Cristina Eneara, hazien inguruko hausnarketa artistiko eta espositibo hunkigarria

María Cueto artistarena izango da aurtengo udan Cristina Eneako Ingurumen Baliabideen Etxea beteko duen erakusketa, 'Hazi hegalariai' izenekoa. Ekainaren 27tik irailaren irailaren 15era arte egongo da ikusgai, eta hainbat jarduera paralelo izango ditu, tartean, bisita gidatuak eta emanaldi musikatuak.



Donostia, 2024ko ekainaren 26a.- Avilésen sortu baina bizitza erdia baino gehiago Berastegin (Gipuzkoa) bizitzen daraman María Cueto (Avilés, 1960) artistak bere unibertso sortzailean murgiltzeko proposamena egiten digu **Hazi hegalariai** erakusketaren bitartez, zeina Cristina Enean ikusgai egongo baita udako hileetan. "Hiru lan-sortaz osaturiko erakusketa da honakoa, eta bakoitzak Cristina Eneako jauregiko areto bat hartuko du", azaldu du artista asturiarrak. Beheko solairuan, 'Basoaren bihotza' izenarekin, piñerina landareekin eginiko pieza fin eta delikatuak bildu ditu. "Zuhaitz ñimiñoak irudikatzen ditut, forma geometrikodun basoak sortuz, geometria oso garrantzitsua baita nire lanean, organikoa den edozerk duen kaosari harmonia ematen diola iruditzen baitzait", azaldu du Cuetok. Horrela, espiral, esfera eta kono formako unibertso txikiak eraiki ditu artistak, bisualki eta estetikoki pieza dotore bezain delikatuak sortuz.

Haziek, bizi- eta berritze-sinboloak, leku nagusia dute María Cuetoren obran. Bere manipulazio artistikoaren bidez, Cuetok mirari natural txiki horien berezko edertasuna eta aniztasuna ikustera gonbidatzen gaitu. Hazi ñimiñoetatik hasi eta forma landuagoetaraino, artelan bakoitzak erakusten du artistak naturaren esentzia bera atzemateko eta bere artearen bidez transmititzeko duen trebetasuna. "Natura ez zaintzeak eragin lezakeen hauskortasuna islatu nahi dut nire lanarekin, oreka edozein unetan hautsi daitekeela ulertaraziz". Baina, aldi berean, erabilitako materialekin naturak duen sendotasunaz ere jabetzea bilatzen du artistak, hauskorra dirudien horren barne-indarra.

Mandasko Dukearen pasealekua, 66 20012 Donostia / San Sebastián | Tel: + 34 943 453 526 | cristinaenea@donostia.eus | www.cristinaenea.eus

Patronoak | Patronos:



Gipuzkoako
Foru Aldundia
Diputación Foral
de Gipuzkoa



ETORKIZUNA ORAIN
Es futuro

Babesle iraunkorra | Colaborador permanente:



Erakusketan dauden sailek askotariko gaiak aztertzen dituzte: basoen ugaritasuna, mugitzen ari den uraren bibrazioa, konstelazioen baretasuna gaueko zeruan. Teknika eta materialen konbinazio bakar baten bidez, Cuetok hausnarketara gonbidatzen duten eta inguratzen gaituen mundu naturalarekin lotura sakona pizten duten lanak sortzea lortzen du. *"Konstelazioak' izeneko sortan bildutako lanak ere, esaterako, forma geometriko puruekin sortuta daude, baina erabilitako materialak ezberdinak izanik, eta interakzioak sortzen diren arren, azkenean piezak berriz ere forma geometriko puruetara itzultzen dira, harmonia berreskuratuz".*

Azken sorta, aldiz, 'Urarena' izenarekin, ilusio berezia egiten dion proiektua dela onartu du Cuetok. *"Urarekin eta itsasoek bizi duten egoerarekin lotuta daude hirugarren sortako piezak, eta oraindik inork, ezta nik neuk ere, ikusi ez duen pieza bat izango du protagonista nagusi".* Artistak bere Berastegiko estudioan azken hileetan zatika egin duen pieza erraldoi bat izango da hori, Cristina Enean pieza guztiak lotu arte inork ikusi gabea. *"Olatu erraldoi bat izango da, haziz egina, eta bisitariak alde batetik bestera pasatzeko aukera izango dute".* Horrez gain, hirugarren sala horretan, iturriak, ur-zurrustak, ur-tanta bat edota itsasoetako zenbait biztanle irudikatzen dituzten piezak egongo dira ikusgai.

Jarduera paraleloak

'Hazi hegalaria' erakusketak ostegun honetan, ekainaren 27an, irekiko ditu ateak, arratsaldeko 17:00etan izango en irekiera ekitaldi publiko batean. Bertan izango da María Cueto egilea ere, bertaratzen diren norbanako nahiz hedabideei erakusketaren inguruko xehetasun guztiak ematen eta bisita gidatua eginez.

Horrez gain, erakusketak ondorengo jarduera bereziak izango ditu, zehaztutako egun eta orduetan:

• Hitzaldia. Arte y naturaleza: diálogo entre creación y medio ambiente

Uztailaren 20an, larunbata, 18:30ean, Cristina Enean

Artea eta Natura: Sorkuntzaren eta Ingurumenaren arteko Elkarrizketak mahai-inguruak hiru ahots nagusi bilduko ditu: Santi Eraso, Julen Rekondo eta Cristina Enea Fundazioa. María Cueto "Hazi hegalaria" erakusketan kokatzen da topaketa hau, eta artistaren presentzia izango du. Zenbait praktika artistikok eta naturak elkar nola uztartzen, eragiten eta osatzen duten aztertzea du helburu.

Elkarrizketa aberasgarri honetan, artea edertasunarekin lotzen gaituen indar eraldatzailea nola izan daitekeen aztertuko dugu, eta, batzuetan, naturaren hausnortasunaz ohartarazten gaitu, gure ingurunea etorkizuneko belaunaldientzat babestera eta zaintzera inspiratuz. Artea eta Natura: Sorkuntzaren eta Ingurumenaren arteko Elkarrizketak jarduerak gizadiaren eta naturaren arteko etorkizun harmoniatsuago baten eraikuntzan hausnartzeko, ikasteko eta laguntzeko aukera paregabe moduan aurkeztzen zaigu.

• Bisita gidatuak

Uztailak 19, ostirala (gaztelera) eta irailak 12, osteguna (euskaraz), 11:45ean. Izen-emateak www.cristinaenea.eus

Cristina Enea Fundazioak eta Ekain Galeriak María Cueto "Hazi hegalaria" erakusketaren bisita gidatuan parte hartzeko gonbidapena egiten dute. Erakusketak honek naturarekin dugun harremanean sakontzeko inspirazio iturri bat eskaintzen du, María Cueto lanen bitartez, honek bere eraikuntza artistiko poetikoak haziekin ehuntzen



baititu. Baso oparoen miniaturretatik hasi eta zeruko konstelazioetaraino, obra bakoitzak inguruko edertasunari eta hauskortasunari buruz hausnartzera gonbidatzen du. Bisita gidatua Maria Cuetok, bere bikote eta kolaboratzaile Mariano Arsuagak eta Ekain Galeriako arduradun Rita Unzurrunzagak egingo dute. Aukera paregabea da artistaren lana zuzen zuzenean hobeto ezagutzeko.

• **Musika emanaldiak: Soinu-haziak**

Uztailak 13 (larunbata), abuztuak 10 (larunbata) eta irailak 7 (larunbata), 18:30ean. Izen-emateak www.cristinaenea.eus

David Azurzaren ahots-performance instrumentala María Vegarekin batera.

Soinuek, itxuraz hutsalak diren haziek bezala, botere izugarriko bizi-indar potentziala dute barruan.

María Cuetoren eskulturak eta haiek kokatzen diren espazioa inspirazio iturri dira soinu-zko esku-hartze honetarako, pieza artistikoekin loturak eta elkarrizketak ezartzen dituzten soinu eta ahots elementu txikietatik abiatuta. Horrela, errealitate kontenplatibo berri bat eratzen da, hasierako itxurazko hauskortasuna gainditzen duena, bibrazio-entitate berri bihurtzeko: Bizitzaren korrante geldiezina.

Mandasko Dukearen pasealekua, 66 20012 Donostia / San Sebastián | Tel: + 34 943 453 526 | cristinaenea@donostia.eus | www.cristinaenea.eus

Patronoak | Patronos:



Gipuzkoako
Foru Aldundia
Diputación Foral
de Gipuzkoa



ETORKIZUNA ORAIN
Es futuro

Babesle iraunkorra | Colaborador permanente:



La artista María Cueto acude a Cristina Enea con su exposición más especial, una emocionante reflexión artística y expositiva en torno a las semillas

La de la artista María Cueto será la muestra que este verano albergará el Centro de Recursos Medio Ambientales de Cristina Enea, titulada 'Semillas voladoras'. Se podrá visitar desde el 27 de junio hasta el 15 de septiembre, y contará con varias actividades paralelas, entre ellas visitas guiadas y eventos musicales.



Donostia / San Sebastián, 26 de junio de 2024.- La artista María Cueto (Avilés, 1960), nacida en Avilés pero que lleva viviendo más de media vida en Berastegi (Gipuzkoa), nos propone adentrarnos en su universo creativo a través de la exposición **Semilla voladoras**, que se podrá visitar en Cristina Enea durante los meses de verano. "Se trata de una exposición compuesta por tres series de trabajos que ocuparán cada una de las salas del palacio de Cristina Enea", ha explicado la artista asturiana. En la planta baja, bajo el nombre de 'El corazón del bosque', ha recogido piezas finas y delicadas realizadas con la planta piñerina. "Imagino árboles diminutos, creando bosques con formas geométricas, porque la geometría es muy importante en mi trabajo, ya que cualquier aporta armonía al caos de cualquier elemento orgánico", explica Cueto. Así, la artista ha construido pequeños universos en espiral, esfera y cono, creando piezas tan elegantes como delicadas visual y estéticamente.

Las series presentes en la exposición exploran una variedad de temas, desde la exuberancia de los bosques hasta la vibración del agua en movimiento, pasando por la serenidad de las constelaciones en el cielo nocturno. A través de una combinación única de técnicas y materiales, Cueto logra crear obras que invitan a la reflexión y despiertan una profunda conexión con el mundo natural que nos rodea. "Quiero reflejar con mi trabajo la fragilidad que supone no cuidar la naturaleza, ya que se puede romper en cualquier momento su equilibrio". Pero, al mismo tiempo, la artista busca la

conciencia de la solidez de la naturaleza con los materiales utilizados, la fuerza interior de lo que parece frágil.

Las series presentes en la exposición exploran una variedad de temas, desde la exuberancia de los bosques hasta la vibración del agua en movimiento, pasando por la serenidad de las constelaciones en el cielo nocturno. A través de una combinación única de técnicas y materiales, Cueto logra crear obras que invitan a la reflexión y despiertan una profunda conexión con el mundo natural que nos rodea. *"Las obras recogidas en la serie 'Constelaciones', por ejemplo, también están creadas con formas geométricas puras, pero siendo diferentes los materiales empleados, y aunque se generan interacciones, al final las piezas vuelven a las formas geométricas puras, recuperando la armonía".*

La última serie de piezas, en cambio, bajo el nombre de 'Del agua', Cueto ha reconocido que es un proyecto que le hace especial ilusión. *"Las piezas de la tercera serie están relacionadas con el agua y la situación que viven los mares, y tendrá como protagonista principal una pieza que todavía nadie, ni yo misma, ha visto".* Esa será una pieza gigante que Cueto ha producido por partes durante los últimos meses en su estudio de Berastegi y que se podrá ver por primera vez una vez ensamble todas las piezas en Cristina Enea. *"Se tratará de una ola gigante, hecha de semillas, en la que los visitantes podrán pasar de un lado a otro".* Además, en esta tercera sala se expondrán piezas que representan fuentes, surtidores, una gota de agua o algunos habitantes de los mares.

Actividades paralelas

La exposición '*Semilla voladoras*' abrirá sus puertas este jueves, 27 de junio, a las 17:00 horas en un acto público de inauguración, en la que estará presente la autora María Cueto, que dará todos los detalles de la exposición a particulares y medios de comunicación y realizará una visita guiada.

Además, la exposición contará con las siguientes actividades especiales en los días y horas que se especifican a continuación:

- Conferencia. Arte y naturaleza: diálogo entre creación y medio ambiente

Sábado 20 de julio, 18:30 en Cristina Enea

La mesa redonda Arte y Naturaleza: Diálogos entre Creación y Medio Ambiente convoca a tres voces destacadas en este ámbito: Santi Eraso, Julen Rekondo y Fundación Cristina Enea. Este encuentro, enmarcado en la exposición "Semillas voladoras" de María Cueto y que contará con la presencia de la artista, tiene como objetivo explorar cómo algunas prácticas artísticas y la naturaleza convergen, se influyen y se complementan mutuamente.

En este diálogo enriquecedor, exploraremos cómo el arte puede ser una fuerza transformadora que nos conecta con la belleza y, en ocasiones, nos alerta de la fragilidad de la naturaleza, inspirándonos a proteger y preservar nuestro entorno para las generaciones futuras. Arte y Naturaleza: Diálogos entre Creación y Medio Ambiente promete ser una oportunidad única para reflexionar, aprender y colaborar en la construcción de un futuro más armonioso entre la humanidad y la naturaleza.



- Visitas guiadas

19 de julio, viernes (castellano) y 12 de septiembre, jueves (euskera), 11:45. Inscripciones en www.cristinaenea.eus

Fundación Cristina Enea y la Galería Ekain invitan a participar en la visita guiada a la exposición Semillas Voladoras de María Cueto. Esta muestra ofrece una fuente de inspiración para profundizar en nuestra relación con la naturaleza, a través de las obras de María Cueto quien teje con semillas sus poéticas construcciones artísticas. Desde miniaturas de bosques exuberantes hasta constelaciones en el cielo, cada obra invita a reflexionar sobre la belleza y fragilidad del entorno. La visita guiada será de la propia mano de María Cueto, de su compañero y colaborador Mariano Arsuaga y de Rita Unzurrunzaga, responsable de Galería Ekain. Esta es una oportunidad única para descubrir más sobre el trabajo de la artista de su propia mano.

- Actuación musical: Semillas de sonido

13 de julio (sábado), 10 de agosto (sábado) y 7 de septiembre (sábado), 18:30 h. Inscripciones en www.cristinaenea.eus

Actuación-performance vocal instrumental de David Azurza junto con María Vega.

Los sonidos, como las semillas, aparentemente insignificantes, encierran en su interior una fuerza potencial de vida de enorme poder.

Las esculturas de María Cueto y el espacio donde se ubican sirven de inspiración para esta intervención sonora a partir de pequeños elementos de sonido y vocales que establecen vínculos y diálogos con las distintas piezas artísticas. Se conforma así una nueva realidad contemplativa que supera la aparente fragilidad inicial para convertirse en una nueva entidad de vibración: la imparable corriente de la Vida.